

Artisau parte-hartzaileak, langintzak eta geografia-jatorriak

Azokan parte hartuko duten artisauak auke-
ratzea zeregin zailenetako bat izaten da antolatzaileentzat. Izan ere, azoka-barrutiak edukiera jakina du, eta beraz, erakusketari eta standen kopurua mugatu egin behar izaten da. Bestalde, gure iritziz, erakusketari gehiegi egonez gero, jendeak jaramon gutxiago egingo die produktuei, eta horrek salmentei kalte egin diezaike.

Aurtengo azokan, lehen esan dugunez, 50 artisauk hartu dute parte. Horietatik 16 lehenengo aldiz etorri dira Erreneriako Artisautza Azokara (parte-hartzaile guztien %32). Hala ere, Erreneriako Azokan txandaketa handia dagoela nabarmendu behar da. Izan ere, aurten Erreneriara etorri diren artisauen %64k ez dute Azokan parte hartu azken urteetan.

Artisauen hautaketa-prozesuan irizpide jakin batzuk erabiltzen ditugu. Hasteko, produktu eta langintzen aniztasuna eta lanaren kalitatea bilatzen ditugu, eta oinarri horiekin, artisau guztien artetik, produktu-aukera zabalena eta lan anitzenak dituzten horiek aukeratzeko ditugu; objektiboki, bisitarien interesgarrienak irudituko zaizkien guztiei lekua egiten saiatzen gara. Era berean, ahalegin handia egiten dugu artisau eta lanbide berriak erakartzeko, nahiz eta hori lortzea ez den batere erraza. Bestetik, Gipuzkoako artisauei lehentasuna ematen diegu (aurtengo azokan, parte-hartzaile guztien %44 gipuzkoarrak izan dira), baina nolahi ere, lurraldeen arteko orekari eutsi nahi izaten diogu, Euskal Herria osoko artisau-sektorearen ordezkariak zabala eskaintzeko.

Hona hemen aurten gurekin izan ditugun 50 erakusleen jatorria: Gipuzkoa (22), Bizkaia (8), Nafarroa (8), Araba (7), Iparralde (5).

Aurtengo materialen artean, ondokoak izan ditugu ikusgai:

Zura: eskultura eta taila (4); jostailu eta jokoak (3); kaikuak, eskalaproiak eta olibondoak egindako tresneria (3); tarazea (1).

Burdina eta metalak: labanagintza (1); brontze galdutua (1); bitxigintza (4); burdinlantza eta suilak (1).

Buztina eta harria: buztigintza (1); zeramika (3); bitxigintza zeramikan (1); hargintza eta miniaturazko harriak (2).

Beira: fusing eta tyffanis (2); kanaberaz puztutako beira (1); pitxiak (1).

Oihalkiak: ehungintza (1); oihalezko poltsak (1); seta margotuak (1); serigrafia eta arropa margotzea (2); espartingintza (1).

Larrua: pilotak (1); larrugintza (3).

Papera eta kartoia: koadernaketa (1); kaligrafia eta kodizeak (1).

Bestelakoak: lore idortuak (1); txotxongiloak (1); fimo orearen artisautza (1); xaboi eta olio naturalak (2); irudiak (1); musika-tresnen arkugintza (1); idazlumak (1); birziklatutako gaiekin egindako eskulturak (1).

Aurten, diru-laguntzen murrizketa dela eta, ezin izan dugu karparik jarri kanpoan, urtero ohi bezala, eta ondorioz, ez da izan ez elikaduraren standik ez tabernarik. Gune hori, gainera, jendearen topagune eta atsedene-leku ere izaten zenez, hura ezabatzeak bisitarien eta artisauen kexak eragin ditu. Egoera hori datorren urterako konponduko dela espero dugu.

Bestalde, gogorarazi beharra dago antolatzaileok Azokan parte hartzen duten artisauei egiten diegun lehen eskakizuna: produktuak erakusgai ipintzeaz gain, horiek jende aurrean landu "behar" dituzte, ahal den neurrian prozesua bertatik bertara, *in situ*, ikusi ahal izateko. Horixe da, agian, jendearengan (eta, batez ere, gazteenengan) jakin-min handiena pizten duena.

Era berean, gogorarazi nahi dizuegu www.ereintza.com web orria eguneratuta dagoela eta bertan artisauei buruzko informazio gehiago eskura daitekeela.

Nabarmentzeko artisauak

Erreneriako Azokaren ezaugarrietako bat bertan parte hartzen duten artisau guztien kalitatea da. Hala ere, urtero, artisau berrien artetik batzuk





Jean Luc Tauziede - Artisau Lanaren Kalitateari Saria

aipatzen ditugu bereziki, beren originaltasunagatik edo kalitateagatik nabarmendu egiten direlako.

Horrek, noski, ez du aipamenik gabe uzten beste zenbait produktu eta ofizio, hala nola egur tailatzea, zurezko jostailuak eta tresnak, hargintza, ehungintza, koadernaketa, beirazko produktuak eta abar. Izan ere, aipatu beharra dago, horietan ere, gero eta maizago aurki ditzakegula diseinu berriak ohiko produktuen aldamenean.

Jean-Luc Tauziede

Angeluko artisau honek biolin, biolontxelo eta kontrabaxuetarako arkuak egiten ditu. Lan fina eta delikatu da, Erreterriko Azokan inoiz ikusi ez zena. Bere bezeroen artean mundu osoko orkestra eta musikari handiak daude: Japoniakoak, Estatu Batuetakoak eta Europakoak. Frantziako gobernuak emandako Artisau Tradizionalaren zigilua du. Tradizio handiko artisau-lanei eustea ahalbidetzen duten pertsonak saritzen dira zigilu horrekin.

Bozal eta Berasarte

Ganibetak egiten dituzte. Ganibetaren elementu guztiak pertsonalizatzen dituzte: orria, kirtena, zorroa... Bezeroari bere gustuko gauzak jartzeko aukera ematen diote: ehizaki baten atala, animalia baten adarra, etab. Lasarteak dira.

Du stylo à la plume

Caroline Tauziede artisauak luma estilografikoak, boligrafoak eta portaminak egiten ditu, kalitate handiko zur nobleak erabiliz. Produktu bakoitza lan zehatz eta arduratsu baten emaitza da. Kalitate handiko mekanismo bat du, eta duen gorputz torneatua munduko zur nobleenekin egina dago. Egikaritzaren zorrotasunak, doitasunak eta gustu estetikoak produktu paregabea sortzen dute. Luma estilografiko bakoitzak bere zurezko kutxatila izan dezake, lumaren estilo estetiko berean egina.

Pedro Mantxo

Zangozako artisau hau Euskal Herriko errentari onenetako bat izan den Jesus Juantoren suhia da, eta haren forja-tailerrean urte asko lan egin ondoren, bere ardurapean hartu du. Tailer horretan lehengo tradizio artistiko eta teknikoa jaso dituzte, eta forjaketaren arteari prestigio eta ospe handia eman diote. Bere zaharberritzeak eta lanak Nafarroako eraikin askotan ikus daitezke, besteak beste, Iruñeko Katedralean, Tuterako Katedralean, Leireko Abadian eta Irantzuko Monasterioan. Atzerrira ere esportatu dituzte lan batzuk, adibidez, Alemaniara, Suitzara edo Australiara. Mota askotako lanak egiten ditu, baina batez ere hauek nabarmentzen dira: pegarrak, burdineria artistikoak, burdin hesiak, lanparak eta haize-orratzak.



Idoia Larrañaga - Stand Onenari Saria

Huegun

Gotzon Huegun artisauek hernaniarrak zuzeko eskulturak egiten ditu, eta badaki Erretereriako azokan sari bat jasotzea zer den: artisauek-produktuaren kalitatearen saria jaso zuen iaz. Bere lanen originaltasun eta egikaritzaren arduratsuegatik, aurten ere azokan izan da.

Urbela zur lanketa

Juan Ramón Muela zenbait urtez zizelkatze-lanetan, ebanisterian eta eskulturgintzan aritu da. Lan-teknika tradizionalak eta eskuak erabiliz, eta lehengaien nobleziari esker (haritza, gaztainondo, gerezi, tindu, argizari eta olio naturalak), pieza oso ederrak sortzen ditu: bitxiontzia, katiluak, argazki-euskarriak, errotuluak, kutxak, altzariak, etab. Bere ikasketak osatzeko, Nafarroako Andanaia zizelkatzaileekin aritu zen lanean, eta gaur egun, zizelkatze-eskolak ere ematen ditu Bilboko zenbait udal zentrotan.

Hasiera-ekitaldia

Azokaren hasiera-ekitaldi ofiziala apirilaren 30ean, ostiralean, izan zen, goizeko 12:00etan. Naroa Pérez Ereintza Elkarteko lehendakariaren ongietorriaren ondoren, Berrikuntza eta Jakintzaren

Gizartearen diputatuak, José Ramón Guridi jaunak, hartu zuen hitza eta ondoren Erretereriako Alkateak, Juan Carlos Merino jaunak. Bertan izan ziren, baita ere, Iñaki Rekalde jaunak, babesa ematen digun Kutxako ordezkaria, Udaleko zinegotziak, komunikabideetako kideak eta Ereintzarekin lotura duten hainbat lagun. Jarraian, agintari eta gonbidatu guztiek azoka bisitatu zuten.

Azokan eman diren sariak

Azken urteetako ohiturari jarraituz, bi sari banatu dira partaideen artean: Artisauek Lanaren Kalitatearen Saria eta Stand Onenaren Saria. Bi sari horiek artisauek produktuak aurkezterakoan ahalik eta kalitate eta estetika onena lortzeko ahalegin berezia egitea dute helburu.

Artisauek Lanaren Kalitatearen Saria, ikerketa eta diseinua bultzatzeko asmoz sortu zen orain dela hiru urte eta honako hauek ditu oinarri:

- Ikerketa eta esperimendazioa, bai materialetan, baita ekoizpen-tekniketan ere.
- Diseinua, estiloen berritasuna.
- Produktuen lanketa eta akaberaren fintasuna.
- Saria: 350 euro eta Agiria.

Arte kritiko batek, artista sortzaile batek eta marketing arloko aditu batek osatu dute epaimahaia.

Garrantziko sari horren aurtengo irabazlea sokako musika-tresnetarako arkuak egiten dituen Jean Luc Tauziede angeluar artisaua izan da. Epaimahaiaren iritziz, artisau horren "ikerketa eta berriztapenaren aldeko erronka azpimarratu behar da, antzinako produktu artisanal bat sortzen duen arren, garrantziko berrikuntza bat eransteko gai izan baita: karbonozko bi xafla mehe sartzen ditu egurrezko hiru xaflen artean, arkuaren erresistentzia handitzeko, sonoritatea galdu gabe".

Stand Onenaren Saria, berriz, "bere lanbideko lehengaiak edo amaitutako produktuak erabiliz, oro har, aurkezpenari eta kalitate estetikoari dagokionez, standik onena eskaintzen duen artisauari" ematen zaio.

Aurten, Idoia Larrañaga artisau sanpedrotarrak eskuratu du saria. Erdi Aroko kaligrafia eta antzinako kodizeen kopiak egiten ditu, eta "harriztuta eta oso pozik" agertu da irabazitako sariarekin.

Ohiko moduan, epaimahaia Gipuzkoako Merkataritza Bazkondeak izendatutako pertsonak osatu dute.

Aurrera begira

Aurtengo Azokaren balantzea egiterakoan gure helburuak bete ditugula esan dezakegu. Artisauak honako hauek azpimarratu dituzte, bes-

teak beste: erakusgunearen instalakuntzen egokitasuna, antolaketa orokorra, langintzen kalitatea eta aniztasuna, bisitarien kopurua eta haiek artisauen lanei eskainitako arreta. Bestalde, salmentari dagokionez, uste baino gehiago saldu da eta artisau gehienak pozik agertu dira lortutako emaitzekin.

Idazki honen hasieran aipatzen genuen moduan, egungo artisautzaren sektoreak dituen beharrak eta egoera sozio-ekonomikoa direla eta, Azoka soil bat baino haratago joango den proiektu berri bat martxan jartzea beharrezkoa iruditzen zaigu. Horretarako, lehen pausoak ematen hasiak gara, proiektu berri bat aurkeztu baitiegu Foru Aldundiari eta Errenteriako Udalari. Ziur gaude orain arte bezain ondo erantzungo dutela bi erakundeek, eta aurrerantzean ere Errenteriak jarraituko duela Euskal Herriko artisautzaren nahitaezko erreferente bat izaten.

Bukatzeko, ospatu berri dugun XXXII. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka egitea ahalbidetu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Lehenik, parte hartu duten artisau guztiei. Eskerrak ere urtez urte azokari fideltasuna erakutsi dioten bisitariari, bere lana eta ardura jarri duten komunikabideei eta beste zenbait zerbitzuri, eta, nola ez, bere babesa eman diguten erakundeak: Gipuzkoako Foru Aldundiari, Errenteriako Udalari eta Kutxari. Bihotzie berritoki guztiei gure esker beroena.

